



www.uzturpe.net



Ibarra 2014ko uztailaren 9a

Ikastolako lehen egunetan 2 urteko gelan

Haur bakoitza eskolan lasai eta modu egokian bertakotuta sentitzeko denbora bat behar du eta denbora horri "egokitze aldia" deitzen diogu.

Baina ez da haurra bakarrik prozesu honen barruan sartuta egongo dena, eskola eta familia bera ere, haurraren inguruko partaide hurbilenak, egokitze aldiaren prozesu horretako partaide izango dira.

Familiok nola lagun dezakezue egokitze aldi hau samurragoa egiten haurrari:

1. Ama/aita urduri ikusteak ez dio inongo mesederik egingo, horrela berak daukana handitu besterik ez duzue egingo.
2. Haurra bakarrik uzten duzunean segurtasuna transmititu, agurra ez luzatu; Agurtzea oso garrantzitsua da, baina ez dezagun unea gehiegi luzatu; agur esan eta muxu bat ematearekin nahikoa da.
3. Hitz egin ezazue zuen semearen edo alabaren hezitzailearekin. Zuen zalantzak eta sentimenduak adieraz diezazkiozue, baina ez haurraren aurrean. Familiaren eta eskolaren arteko elkarrizketak egon litezkeen mesfidantzak arinduko ditu.
4. Konstantzia. Egokitze prozesua hobea izateko, haurrak, jarraian etorri behar du ikastolara. Honek sozializazioari mesedea egiten dio.

Ziur gaude zuen laguntzarekin oso ongi joango dela egokitze aldi hau. Eskerrik asko zuen arreta eta jarreragatik.

Agur bero bat.

EKARRI BEHARREKO GAUZAK: haurraren historia adierazten duen argazki bilduma azpian testua idatzirik; familiaren argazki bat; aldatzeko jantziak izena jarrita; fardela erabiltzen duenarentzat fardelak, toailita bustiak eta toaila txiki bat; aurrean eta eskumuturrean botoiak dituen mantala.